

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Zalduondoko parke, lorategi eta berdeguneei buruzko udal ordenantzari

Ez denez erreklamaziorik aurkeztu Zalduondoko parke, lorategi eta berdeguneei buruzko udal ordenantza onesteko erabakiaren aurka, hura jendaurrean egoteko arauzko aldian zehar, behin betiko onartu dela ulertzen da, eta, jarraian, ordenantzaren testu osoa argitaratuko da, toki araubidearen oinarriak arautzearen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasotako ondorioetarako.

Zioen adierazpena

Herritarrek gero eta kontzientzia handiagoa dute ingurumenaz, eta horrek parkeen eta lorategien balorazioa handitzea eragin du. Hori dela eta, legediak ondasun publikoei ematen dien babesa gorabehera, nahitaezkoa da babes gehigarri bat, espazio horiei dagokienez herritarren erabilerak eta bizikidetzara arautuko dituen ordenantza baten bidez.

Udalerrian berdegune kopuru handia dagoela eta (17.000 m² baino gehiago), beharrezkoa da parke eta lorategiak babesteko estaldura gehigarri bat ematea, parke eta lorategi horien kontserbazioa eta mantentzea hobetzeko, ekonomia eta kudeaketa eraginkortasuneko arrazoiengatik, eta eremu horiek gozatzeko behar diren espazio, estetika, lasaitasun eta soseguari ekologikoki eusteko.

Bestalde, ikusten da udal lurzati, lorategien eta berdeguneei mugakide diren etxebizitzak jabe batzuk jarduketak egiten ari direla eremu publiko horietan, kasu batzuetan apaintzeko eta beste batzuetan aprobetxamendua ateratzeko.

Ordenantza honek landare espezieen babesa eta hiri altzarien babesa arautzen ditu.

Ordenantzak espazio horien kontserbazioa ere arautzen du, eta toki administrazioa ere lotzen du, ingurunea behar bezala kontserbatzeko beharrezkoak diren mantentze lanak egiteko helburuarekin.

Ordenantzak partikularrek espazio horien kontserbazioa egitea ere arautzen du, eta haien bizitza edo jardura garatzen den ingurunea edertzeko interesagatik, eta, era berean, toki administrazioa ere lotzen du, ingurunea behar bezala kontserbatzeko beharrezkoak diren mantentze lanak egiteko helburuarekin.

Era berean, espero da ordenantza hau elementu dinamizatzailea izatea, herritarrek zuhaitzak eta lorategiak errespetatu eta kontserbatu ditzaten sustatzeko, hiri ingurunean espazio horiek duten garrantzia islatzeko, kutsadura atmosferikoa, akustikoa eta argi kutsadura murrizteko espazio gisa, bai eta aisialdirako, jolaserako eta estresa murrizteko gune gisa duten ekarpena ere.

I. TITULUA. HELBURUAK ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua

Ordenantza honen xedea da Zalduondoko parke, lorategi eta berdeguneei erabilera eta gozamina defendatzea eta arautzea, nekazaritza interesik gabeko zuhaitzak barne, hiri ingurune naturalaren oreka ekologikorako eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko ezinbesteko eremuak izan daitezkeen.

Halaber, bide eta plaza publikoetako landaketak babestea du helburu, baita interes historikoagatik edo bertako landare aleen kalitateagatik katalogatutako espazioak ere.

Partikularrek berdegune publikoak mantentzea ere arautuko du, edertzeko eta apaintzeko helburuarekin.

II. TITULUA. ERABILERA ARAUAK

2. artikulua

Naturagune eta berdegune publikoak erabilera librekoak eta doako sarbidekoak dira, hurrengo artikuluetan zehaztutako salbuespenekin.

3. artikulua

Ondare berde publikoa defendatzeak eta kontserbatzeak edukiera mugak jar ditzake.

4. artikulua

Udalak erabakiko du espazio horiek erabiltzeko baimena eman ala ez eta erabilera baldintzak, idatziz eta aurrerapen nahikoarekin eskatu badira, toki araubidearekin bat etorritz, eta aipamen berezia egingo die Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeari eta Toki Korporazioen Ondasunen Erregelamenduari.

5. artikulua

Udalak zehaztuko ditu erabilera baldintzak udal erakunde eta elkarteek jaietarako, berbentarako, ekitaldi sozialetarako edo bestelakoetarako idatzizko eskaera egiten dutenean.

6. artikulua

Itxitura eta erabilera kontrola duten parke eta lorategiak irekita egongo dira alkatetzak zehaztutako ordutegien arabera; ordutegi horiek berdegune horietarako sarbideetan egongo dira ikusgai.

7. artikulua

Berdeguneen erabiltzaileek bete egin behar dituzte erabilera eta debekuei buruzko adierazleetan eta seinaleetan agertzen diren jarraibideak, bai eta horri buruz ematen diren guztiak ere.

III. TITULUA. OBRAK, EREMU PRIBATUAK ETA INGURUMENA BABESTEA

8. artikulua

1- Hirigintza ondorio guztietarako eta indarrean dauden ordenantzak eta arauak aplikatzeko ondorio guztietarako, berdegune publikoak oinarritzko beharreko zerbitzutat hartzen dira, eta proiektuak udalaren onespenean izapidetaren mende geratzen dira.

2- Lanak hasi aurretik, obren ekintza eremutik, zirkulaziotik edo ibilgailuen eta makinaren kokalekutik 5 metro baino gutxiagora dauden landare edo hiri altzarien elementu guztiak babestuko dira.

3- Udalak egokitzat jotzen badu, obrak egin aurretik, eta interesdunaren kontura, eraginpeko zuhaitzak eta landaketak esango den lekura eramango dira.

4- Ezin izango da inola ere jardun tokiko interesekotzat jotzen diren zuhaitzen aurka. Zuhaitz horiei eragin diezaieketen obra publiko zein pribatuek beren proiektuak doituko dituzte, ez kaltetzeko eta integratuak izateko.

5- Kalteak eragiten badira eta aurreko artikuluetako edozein betetzen ez bada, eragileek, obra pribatukoak zein publikokoak, sortutako kalteen arabera zehatuko ditu udalak, eta kaltetutako ondasuna jatorrizko egoerara itzuli beharko dute.

6- Eraikin partikularren proiektuetan, ibilgailuen sarrerak eta irteerak zuhaitzei eta lehendik dauden landaketei eragiten ez dieten lekuetan aurreikusiko dira; beraz, udal honetan aurkeztu diren proiektuetan jaso beharko dira badauden landare elementuak eta mugakoak egin beharreko obran.

IV. TITULUA. LANDARE ELEMENTU PUBLIKOEN ETA BERDEGUNEEN ERABILERA ETA BABESA

9. artikulua

Zuhaitzak, berdeguneak, landaketak eta parkeak eta espazio publikoak edertzeko edo erabiltzeko beste elementu batzuk errespetatuko dira. Debekatuta dago espreski honako hauek egitea:

1. Itxitura perimetrala, dela begetala, dela mekanikoa, zuhaitz eta landareen gaineko manipulazio oro: zuhaitz edo zuhaixka berriak landatzea, zuhaitzak edo zuhaixkak moztea, zuhaitzak eta zuhaixkak kimatzea, azalean grabatzea edo erauzteak, sustrai sistema kaltetzea, puntak iltzatzea, bizikletak edo orgak edo motorrak edo kartelak lotzea, edo kableak jartzea, bai eta lorontziak, estatuak, parterrak, bankuak, iturriak, ureztatze sistemak eta paperontziak jartzea ere, udalaren baimenik gabe.

2. Belar gainean aparkatzea eta zirkulatzea, baimendutako ibilgailuak izan ezik.

3. Zaborrak, hondakinak, harri koskorak, harriak, paperak, plastikoak, koipeak edo produktu kaustikoak edo hartzigarriak edo landaketei kalte egin diezaiekeen beste edozein elementu botatzea.

4. Sua piztea berariaz baimenduta ez dauden eta horretarako instalazio egokirik ez duten lekuetan.

5. Etxolak eta baratzeak jartzea eta, oro har, ordenantza honetan jasotakoaz kanpoko berdeguneak eta lorategiak erabiltzea eta/edo aprobetxatzea.

6. Tiro probak edo ariketak egitea punteria praktikatzeko, edozein arma motarekin.

7. Zuhaitzak eta beste edozein eratako landaketak kaltetzea.

8. Ibilgailuak, lanabesak eta parketik edo berdegunetik kanpoko beste edozein elementu garbitzea.

9. Naturguneen eta berdegune publikoen erabiltzaileek beste erabiltzaile batzuen atsederako eta lasaitasunerako eskubidea errespetatu beharko dute, eta, ondorioz, ez da erabiliko gogaikarriak izan daitezkeen soinu edo jolas aparatuak.

10. Txakurrak sartzeko baimena emango da, baldin eta lagunduta badoaz eta indarrean dauden arauak betetzen badituzte.

11. Parke, lorategi eta plaza publikoetan txakurrak gidatzen dituzten pertsonak ezingo dute haien gorozkirik utzi bertan, eta, oro har, oinezkoak ibiltzeko edozein gunetan, batez ere haurrentzako jolasguneetan. Artikulu hau betetzen ez duten txakurren jabeek gorozkiak jaso beharko dituzte nahitaez.

12. Ordenantza honetan etxeko animaliei buruz arautzen ez denari dagokionez, Zalduekoko txakurrak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantzaren xedatutakoa beteko da.

13. Debekatuta dago, udal lizentziarik gabe, ordenantza honek hartzen dituen gunetako batean ere merkataritza edo industria jarduerarik egitea, bai eta espazio horietako edozein zati edo elementu helburu partikularrekin erabiltzea ere udalaren baimenik gabe.

V. TITULUA: ARAU OROKORRAK**10. artikulua**

1- Kapitulu honetan aipatzen diren lekuak eta eremuak jabari eta erabilera publikoko ondasuntzat joko dira, eta ezin izango dira pribatizatu, beren helburu, eduki, ezaugarri eta oinarriagatik esparru horiek helburu partikularrekin edo pribatiboekin erabiltzea dakarten ekintza antolatuetan, beren izaera eta destinoaren kaltetan, udalaren baimenik gabe. Onuradunen ardura izango da ekintza horiek egiteko behar diren bermeak aurkeztea.

2- Berdegune eta espazio berdeen eta horietan instalatutako altzarien erabiltzaileek adierazleetan, errotuluetan edo seinaleetan horien erabilerari buruz agertzen diren jarraibideak bete beharko dituzte. Edonola ere, udal agintariak emandako jarraibideak bete behar dituzte.

3- Udal lizentzia lortu beharko dute jolas erabileraz eta aisialdiaz bestelako erabilerak, hala nola arte jarduerak, zinema operadoreak eta abarrek. Horiek guztiek udalak emandako ohar guztiak bete beharko dituzte.

VI. TITULUA. IBILGAILUAK BERDEGUNEETAN**11. artikulua**

1- Bizikletek pasealeku, parke, lorategi eta berdeguneetatik zirkulatu ahal izango dute beraiazko baimenik gabe, baldin eta jendetzak horretarako aukera ematen badu eta berdeguneko gainerako erabiltzaileei eragozpenik eragiten ez badie.

2- Kasu horietan, bizikleten zirkulazioa mugatua izango da abiadurari dagokionez, eta ezin izango dute gainditu 10 km/h.

3- Garraioko ibilgailuek ezin izango dute parkeetan eta lorategietan zirkulatu edo aparkatu, salbu eta zerbitzu hauetarako badira: kioskoak, udal ibilgailuak eta baimendutako hornitzaileak; baimendutako abiadura 25 km/h-ra murriztuko da.

4- Desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuek berdeguneetatik zirkulatu ahal izango dute etxebizitzara sartzeko, betiere 25 km/h-ko abiadura gainditzen ez badute.

5- Desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuek udalak baimendutako etxebizitzatik hurbil dagoen berdegunean aparkatu ahal izango dute, baldin eta beste aparkaleku egokirik ez badute.

6- Ibilgailu partikularrek, baimendutakoek izan ezik, ezin izango dute parkeetan, lorategietan eta berdeguneetan zirkulatu edo aparkatu.

7- Nekazaritzako ibilgailuek eta horien tresnek lur gogorreko berdeguneetan eta lorategietan aparkatu ahal izango dute, behar den denborarako bakarrik, baldin eta asfaltatutako gunean aparkatu ezin badute, pertsonak eta ibilgailuak ibiltzea galarazteagatik eta nekazaritza lanak egiteko garaian.

VII. TITULUA PARTIKULARREK HIRIKO LURZATI, LORATEGI ETA BERDEGUNEETAN EGITEN DITUZTEN ERABILERA, KONTSERBAZIOA ETA MANTENTZE LANAK ARAUTZEA**12. artikulua**

Zalduondoko udalerriko edozein etxebizitzaren titularrak baimena eskatu ahal izango du udalerriko parkeak, lorategiak, lorategi-plazak eta berdeguneak kontserbatzeko eta mantentze lanak egiteko.

13. artikulua

Baimena prekarioan emango da eta doakoa izango da, gehienez 4 urtez. Baimen horrek ez du inolako eskubiderik sortuko aipatutako kontserbazio eta mantentze lanetarako lagatzen den udal titulartasuneko ondasunaren gainean.

14. artikulua

Lau (4) urteko epea amaitutakoan, beste baimen batzuk eskatu ahal izango dira, eta eskaera egitean indarrean dauden baldintzetan eman ahal izango dira.

15. artikulua

Eskaera bat baino gehiago egiten bada, lehenetasuna izango du mantendu nahi den lorategi eremutik hurbilen bizi den partikularrak egindako eskaerak, eta ezin bada eskaera ebatzi bizilekutik hurbil dagoela kontuan hartuta, eskaera ordenaren arabera egingo da.

16. artikulua

Zalduondoko Udalak edozein unetan eten dezake baimena, baldin eta berdeguneak hondatzen edo kaltetzen badira, behar bezala erabiltzen ez badira edo udalaren beste jarduera batzuetarako behar badira.

17. artikulua

Partikularrei kontserbatzeko eta mantentzeko baimendu zaizkien berdegune publikoek irisgarriak izan behar dute auzokoentzat, eta gutxieneko txukuntasun, garbitasun eta egoera fitosanitarioko baldintzak eduki.

18. artikulua

Partikularrei kontserbatzeko eta mantentzeko baimendu zaizkien berdegune publikoek kontuan hartu behar dituzte udalak emandako jarraibideak.

19. artikulua

Baimenaren ondorioz berdeguneak osatzen dituzten elementuak hondatzen edo kaltetzen badira, ukitutako ondasuna birjartzearen balio ekonomikoa eskatuko da.

20. artikulua

Udalaren berdeguneetan eragina izan dezakeen edozein jarduketa egiteko, partikularrak lizentzia eta/edo baimena eskatu beharko dio udalari.

21. artikulua

Baimenaren xede diren parke, lorategi eta berdeguneetan egiten den edozein jarduerak, jatorrizko egoera nabarmen aldatzen badu, udalaren baimena izan beharko du.

22. artikulua

Lorategi zonatik ibilgailu motordunez etxebizitzara sartzeko bideak arauzko udal baimenarekin batera doazen baldintza teknikoak bete behar ditu. Edonola ere, espazio berdea (sareta edo antzekoa) mantentzen duten elementuekin egin beharko da.

VIII. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA**23. artikulua**

Ordenantza honetako aginduen kontra doazen egite edo ez egiteek administrazio mailako erantzukizuna sortuko dute, bide penalean, zibilean edo bestelakoetan eska litekeenari kalterik eragin gabe.

Administrazioko arau hausteen ondorioz erantzule diren pertsona fisiko eta juridikoei bakarrik ezarriko zaizkie zehapenak. Zenbait pertsonari batera jarritako betebeharrak ez betetzea denean arau haustea, guztiek erantzungo dute solidarioki.

24. artikulua

Ezartzen diren zehapenei kalterik egin gabe, arau hausleek eragindako kalteak konpondu behar dituzte, eraldatutako ondasunak leheneratu eta berriro jartzeko.

25. artikulua. Arau hausteak

Hurrengo artikuluetan jasotzen dira arau hausteak eta oso astunak, astunak edo arinak izan daitezke.

26. artikulua. Arau hauste oso astunak

Arau hauste oso astunak dira honako egitate hauek, pertsoneri, haien ondasunei edo ingurumenari halako izaerako arriskuak edo kalteak eragiten badizkiete eta ordenamendu juridikoa urratuz:

- udalerriko parke, lorategi eta berdeguneen kontserbazioa eta/edo mantentzea hondatzen duen erabilera.
- udalerriko parke, lorategi eta berdeguneen garbiketaren aurkako ekintza partikularrak edo kolektiboak.
- landare elementuak hondatzea.
- jokoak eta kirolak egitea espazio eta forma desegokietan edo inguruko eremuetako erabiltzaileei edo bizilagunei eragozpenak eragiten dizkietenak.
- hiri altzariak hondatzea edo behar bezala ez erabiltzea.
- berdegune berriak jartzea, dagokion araudian edo baimenean xedatutakoa urratuz.
- jartzea etxolak, baratzeak, saretak, estatuak... eta, oro har, ordenantza honetan jasotakoaz kanpoko berdegune eta lorategien erabilera eta/edo aprobetxamendua.
- baimendutako enpresek edo partikularrek tratamendu sanitarioak aplikatzean gabeziak izatea.
- udal emakidadunen barruan dauden landaketak bertan behera utzita daudeneko sintomak.
- barazkiak suntsitzea.
- jarduerak baimenik gabe egitea.
- arau haustea eragin duten egiteak eta ez egiteak interes publikokotzat katalogatuta dauden landaketei eragitea, landare elementuen egoera arriskutsua izatea izurriteak edo pertsonentzat arrisku larria dakarten gaixotasunak hedatzeko.
- izurriteek edo gaixotasunek infektatutako landare elementuak sartzea, dagoeneko ezarrita dagoen gainerako landare komunitateari eraginda.
- jaiak, ekitaldi publikoak edo kirol lehiaketak egitea parke eta lorategietan, udalaren baimenik gabe.
- ibilgailu motordunak erabiltzea baimenik gabeko lekuetan.
- Ordenantza honetako xedapenak urratzen dituzten eta aurreko tipifikazioetan jasota ez dauden egite edo ez egite guztiak.

27. artikulua. Arau hauste astunak

1. Arau hauste astunak dira aurreko artikuluan jasotakoak, pertsoneri, haien ondasunei edo ingurumenari arrisku edo kalte larriak eragiten badizkiete eta ordenamendu juridikoa urratuz.

28. artikulua. Arau hauste arinak

Arau hauste arintzat hartuko dira aurreko artikuluetan oso astuntzat edo astuntzat adierazitakoak, baldin eta, pertsonengan, haien ondasunetan edo ingurumenean eragin txikia dutenez, kalifikazio horretarako kasuak ez badira.

29. artikulua. Preskripzioa

Ordenantza honetan jasotzen diren arau hausteak honako epe hauetan preskribatuko dira, zenbatzen hasita egitatea egiten denetik edo kaltea antzematen denetik kaltea berehalakoa ez bada:

- a) Urtebete, arau hauste arinen kasuan.
- b) Hiru urte, arau hauste astunen kasuan.
- c) Bost urte, arau hauste oso astunen kasuan.

30. artikulua. Zehapenen zenbatekoa

Indarrean dagoen toki araubidearen arabera, legeak bestelakorik jasotzen ez badu, honela kuantifikatuko dira udal ordenantza honen arau hausteen isunak:

- Arau hauste arinak: 750 euroko isuna gehienez ere.
- Arau hauste astunak: 751 eta 1.500 euro bitarteko isuna.
- Arau hauste oso astunak: 1.501 eta 3.000 euro bitarteko isuna.

Aurreko hori aplikagarritzat joko da baldin eta isun handiagorik ez badago, hirigintzaren, ingurumenaren, hondakinen edo beste edozein udal ordenantzaren arloko arau hausteari ezarri beharreko legeria sektoriala aplikatzeagatik.

Zehapenen zenbatekoa eta arau haustearen kalifikazioa mailakatuko dira kontuan hartuta eragindako kalteen izaera, intenzionalitatea, berriro egin izana eta gerta daitezkeen gainerakoak. Berriro egin izana ulertuko da ordenantza honetan araututako izaera bereko arau hauste batengatik zehapen irmoa jaso duena urtebeteko epean.

Zalduondo, 2021eko ekainaren 11

Alkatea

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE